

IL AZALPEN PROBA • <i>Otto Pette</i>	
Kodea*	Taldea
*Anonimotasuna, eraginik gabe kalifikatzeko	

Edukia		/ 2,5
Moldea		/ 2,5
Zuzentas.		/ 5
GUZTIRA		/ 10

- > Hasteko, **kokatu** zati hori: aurkeztu obra, nork idatzia den, ezaugarri orokorrak, berezitasunak...
 - > Ondoren, **zehaztu** zatia (zer, nor(tzuk), non, zergatik...), eta hortik abiatu egizu iruzkina edo komentario orokorra, beti ere **obraz ezer ez dakien irakurle bati** azalduko bazenio bezala.
1. Idatzi orri zurian bakarrik. Orrialde honen atzeko aldea zure apunteetarako erabil dezakezu.
 2. Helburua –**IL lanean egin duzun bezala**–: obraren edukia eta ezaugarriak azaltzea, eta **iritzia** ere ematea.
 3. Azalpena argia izan dadila, eta kohesionatua, idazlan moldekoa. **EZ** idatzi zatiak eginez, txosten eran.
 4. Neurria: 300-400 hitz; txukun eta margenak utzita. Amaitutakoan, jarri hitz kopurua:

Barkamena honi, desenkusa beste bati, iritsi nintzen halako batean Erregeren aurrera. Erreberentzia artega egin, eta oihal zuria erakutsi nion, totalka hitz eginez:

—Opari apala du, maiestate...

Neska beltxaran baten atzealde biluzia irudikatua nuen bertan, tonu gorri, berotan. Supazter baten aurrean zegoen, ispilu bati begira; ispiluak neskaren –Jonaneren– aitzinaldea islatzen zuen, hura ere biluzia, suaren argi-itzalen erabileraren jokoz: hari esker, ikusi-ezikusi egiten zen Jonaneren pubisa ispiluko irudian...

Erregek arretatsu begiratu zion pinturari. Agerikoa zen atsegin zitzaiola bertako irudia, koadroari ertz batetik heldu, eta zuzien argitarantz zuzendu baitzuen. Begiak kizkurtu zituen, xehetasunak hobeto ikusteko. Koadroan nerabilen teknika berria nola adierazi nengoela, Aba Yakue, zer nekarren begiratzeraz inguratuta, karkaraka hasi zen begiak jasoz:

—Pro pudor!

IL AZALPEN PROBA • <i>Otto Pette</i>	
Kodea*	Taldea
*Anonimotasuna, eraginik gabe kalifikatzeko	

Edukia		/ 2,5
Moldea		/ 2,5
Zuzentas.		/ 5
GUZTIRA		/ 10

- > Hasteko, **kokatu** zati hori: aurkeztu obra, nor*ki* idatzia den, ezaugarri orokorrak, berezitasunak...
 - > Ondoren, **zehaztu** zatia (zer, nor(tzuk), non, zergatik...), eta hortik abiatu egizu iruzkina edo komentario orokorra, beti ere **obraz ezer ez dakien irakurle bati** azalduko bazenio bezala.
1. Idatzi orri zurian bakarrik. Orrialde honen atzeko aldea zure apunteetarako erabil dezakezu.
 2. Helburua **–IL lanean egin duzun bezala–**: obraren edukia eta ezaugarriak azaltzea, eta **iritzia** ere ematea.
 3. Azalpena argia izan dadila, eta kohesionatua, idazlan moldekoa. **EZ** idatzi zatiak eginez, txosten eran.
 4. Neurria: 300-400 hitz; txukun eta margenak utzita. Amaitutakoan, jarri hitz kopurua:

IRITSIK GINEN BERRIRO torturagelaren gaineko talaiara. Neskak hilda bailegoen jarraitzen zuen, mahaian luze.

—Zer egingo dugu emaziringa horrekin, baronet? —galdetu zidan borraroburuak—. Ezin dugu leotzetara bidali.

—Zergatik ez?

—Izurriak zenbat eta jende gehiago jo, orduan eta aukera handiagoa bazterrik bazter heda dadin.

Arrazoi zuen borraroburuak, eta pentsatzeko beta eman ziezadala esan nion, eskuaz airean keinu eginez. Arriskuan ikusten nuen neure lepoa. Erregek, onenean ere, bere burua zurituko zuen gortegizonen aurrean, eta bat egingo haiekin: hark ere ni seinalatuko ninduen ziega izurrite-habia bihurtu izanaren errudun.

Jonane izeneko purtzilarenak ez zuen, beraz, eta egoera hartan, munta handirik. Leotzetara bidaliz gero, berehala joko zuen hura ere izurriak. Torturamahaiko biraderari buelta pare bat gehiago eraginda ere, konponduta zegoen neskarekikoa. Ez zen gorteko inor lar harrituko.